

HERRIAREN GOBERNU BATZORDEAK 2024KO UZTAILAREN 2an HARTUTAKO ERABAKIEN LABURPENA.

Azpeitian, 2024ko uztailaren 2an, Udaletxeko bilkura-areto nagusian elkartu da Herriaren Gobernu Batzordea lehenengo deialdian eta ohizko bilkuran, aztergai-zerrendako gaiak eztabaidatu eta erabakitzeko. Nagore Alkorta Elorza alkatea buru dela, eta batzarra osatzen duten zinegotzi denak bertan direla.

Honako akordioak hartu dira:

1.- Herriaren Gobernu Batzordeak 2024ko ekainaren 4an eta ekainaren 18an egindako bilkuren aktak onartu dira..

2.- Azpeitiko "4.1 SANTUTXO" eta "1.2 DONE JAKUE" azpieremuen Jarduketa Integratuaren Birpartzelazio proiektuaren tramitazioari behin betiko onarpena ematea adostu da.

3.- Begoña Moran Lindo eta Jesus Mari Aizpitarte Olaizolari obra baimena ematea adostu da, Oñatz auzoan dagoen Elizondo etxea eraberritzeko.

4.- Promociones Leku Eder, S.A.-k sustatuta Azpeitiko Hiri Antolamenduaren Plangintza Orokorraren baitan "Esklabak-Iturzulo" 4.3 Hirigintza azpieremurako 20.4.3.4 partzelan 14 etxebizitza, lokal komertzial eta trasteroak eta 1etik 6ra bitarteko atariak osatzen duten eraikin-blokearen sotanoak eraikitzeko Exekuzio Proiektua onartu da.

Azpeitia, 2024ko uztailaren 19a
UDALAREN IDAZKARIA,
Olatz Eizaguirre Orbegozo

